

## **7.FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Erabiliko ditugun **baliabide fisikoak** hauek izango dira: instalazioak Espainia osoan zehar egongo dira kokatuta, baina egoitza nagusia **Legorretan** jarriko dugu. Bulegoak, sedearekin batera, Legorretan jarriko ditugu eta autonomia erkidego bakoitzean azpibulegoak jarriko ditugu, autonomia bakoitzeko arazoak konpontzeko eta administratzeko.

Hainbat makina erabiliko ditugu hauen artean, droien muntaketarako makinak, droien piezak egiteko makinak, droien softwarea (txipak) sortuko dituzten makinak... Gure giza baliabideak bulegoko funtzionarioak, banaketa sareko langileak eta droiak egingo dituzten informatiko eta eraikitzaileak edukiko ditugu, besteak beste. Banaketa lanak egingo dituzten droiak edukiko ditugu (paketeak gorde eta beraien helbidea ezartzeko). Sistema informatikoei dagokienez bulegoko ordenagailuak, banatze droiak, etab izango ditugu. Guri produktuak beste enpresatako garraibideetan ekarriko dizkigute eta guk gero gure droietan banatuko ditugu.

Gure **baliabide intelektualak** egile eskubideak eta patenteak izango lirateke. Kasu honetan bakarrik marka patentatuko guke gure asmakuntza bakarra izango delako droiak jada kontzeptu bezala patentatuta baitaude.

Gure enpresak izango dituen **giza baliabideak** hainbat izango dira. Langileak kontratatuko ditugu, makinak lana ondo egiten dutela ziurtatzeko eta makinak ordezkatzeko behar denean. Ezagutzaren aldetik Administrazioak izango du ezagutza, behar den moduan aplikatuko dituzte neurriak. Gaitasun komertzialarekiko guk administratuko ditugu lanak eta enpresaren zeregin eta aldaketa handiak.

Gure proiektua finantzatzeko kreditu-lineak erabiliko ditugu. Banku fidagarrienari proiektua aurkeztu, kalkuluak egin eta ondo iruditzen bazaie 20.000.000 euroko kreditua utziko digute proiektua aurrera eramateko eta ahalik eta azkarren amortizatzen.